

azpeitian zer?

udal aldizkaria

160. zenbakia
2013ko azaroa



Tasa nagusiek ez dute igoerarik

Ingurugiroaren eta ekonomiaren aldeko eta iruzur fiskalarenaurkako neurriak hartu ditu Udalbatzak, aho batez



Autobusak.
Hainbat hobekuntza
lortu ditu Udalak
azken bi urteetan



Birziklapena.
Bilketa selektiboko
datuek gora
egin dute

ale honetan zer?

3 Zerbitzuak eta erabakiak

4 Azpeitia ezagutzen

6 Garraioa

8 Tasak

12 Birziklapena

14 Motxak

15 Agenda

16 Antzerki Topaketak


Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonon.

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48



botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Azaroaren 11, 16, 17 eta 27

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Azaroaren 8, 20 eta 22

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Azaroaren 9, 10, 14, 15, 21, 26 eta 29

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Azaroaren 12, 18, 23, 24 eta 28

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Azaroaren 13, 19, 25 eta 30

albistea eta erabakiak

aldundia



Azpeitiarren proposamenak Aldundiari

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko aurrekontuetatik 500.000 euro Urola Erdiko bizilagunen esku utzi ditu, eta horrela, Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil eta Beizamako herritarrek euren proposamenak egiteko aukera izan dute.

Esperientzia pilotuaren lehen fasea amaituta, 124 proposamen jaso ditu Diputazioak herrietan ezarri diren postontzi eta internet bidez. Prozesu parte-hartzaile honen azken bilera azaroaren 28an egingo da Azpeitiko Sanagustin kulturegunean, 18:30etik aurrera. Bertan agertuko dute non eta nola gastatuko den dirua.

Azpeitiarrek egindako proposamen batzuk:

- Betharram ikastetxeko jolastokian mahaiak eta eserlekuak jarri.
- Alokairu sozialeko etxe parkea handitu.
- Herriarren partaidetza bultzatzeko tresnak eta dinamikak bultzatu.
- Azpeitian eta Azkoitian turismo zerbitzu bana jarri.
- Azpeitiko Berdura plaza eraberritu eta nekazaritza proiektua landu.
- Atletismo pista eraiki.
- Ezinduentzat igogailua jarri Azpeitiko kiroldegian.
- Museo arkeologikoa egin, eta Munoaundi herririka herritarrei zabaltu.
- Azpeitia-Tolosa bidea moldatu.
- Azpeitiko plaza oinezkotu.
- Azpeititik A-8 autobiderako errepide sarea hobetu.

erabakiak



Urriaren 16an egindako Udalbatzan honako erabakiak hartu ziren:

- 1.- 2014. ekitaldirako zerga agintara aho batez onartu zen.
- 2.- Urola Erdiko erregimen bereziko gunearen baitan, 2014 ekitaldirako taxi-zerbitzuaren tarifen onarpena aho batez erabaki zen.
- 3.- Udalak osatuko duen funtsarekin 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2.4 artikulua jasotako konpromisoa betetzea (udala, bere autonomia-dunen erakundeek eta Azpeitia Lantzen) aho batez erabaki zen.

Eskualdean irisgarritasuna hobetuko duten 30 autobus zerbitzu gehiago jarri dira abian

Garraio publikoaren aldeko apustu garbia egiten du Azpeitiko Udalak



Eskualdeko udalerrietako ordezkariak Azpeitian egindako aurkezpenean

Irailaren 2az geroztik, 30 autobus zerbitzu gehiago daude eskualdean Foru Aldundiak eta Urola Erdia bailarako udalerriek lortutako akordioari esker. Zerbitzu berria hauek horrela banatzen dira; Azkoitia eta Azpeitia artean 24 autobus zerbitzu gehiago daude, Zestoatik Zumarragako ospitalera lau zerbitzu gehiago eta Azkoitia eta Zumaia artean (Aizarnazabaletik igarota) beste bi. Azkoitia, Azpeitia, Zestoa eta Aizarnazabaleko udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lortutako akordio bati esker hobetu da garraio publiko

zerbitzua, eta helburua eskualdearen irisgarritasuna hobetzen jarraitzea da.

“Helburua eskualdearen irisgarritasuna hobetzen jarraitzea da”

Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak adierazi zuenez aurkezpenean, bailarak garraio publikoarekin zituen arazoak aspalditik zetozen: “Herriarren eskae-

ra nabarmen bat zen. Gure herritarren iritzia konpartituta da garraio zerbitzu askoz hobeagoak behar ditugula. Eta askoz hobeagoak nola? Ba maiztasun handiagoako zerbitzuekin. Gainera, azken urteetan beharra nabarmen indartu da. Ingurugiro irizpidez gain, mugikortasun jasangarria, autoan ibiltzea oso garestia da. Gasolinaren prezioa igo da eta edozein lekuetara joan eta ezin aparkatuta ibiltzen gara”.

Aurrerantzean ere, hala jarraitzeko asmoa erakutsi dute, gainera, bai

udalek eta baita diputazioak ere Unai Erroitzenea Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko zuzendariak garraio publikoaren aldeko apustua “berretsi”

du. Erroitzeneak aurreratu duenez, “aurrera begirako apustu estrategiko berriak ditugu eskuartean, eta aurki Gipuzkoako 57 herritan garraioaren eta mugikortasunaren inguruko

prozesu parte-hartzailea abiatuko dugu, herritarren behar eta mugikortasun ohiturak aztertu eta eskualdean, eta oro har, Gipuzkoan zerbitzu berriak ezartzeko”.

Parte-hartze prozesua abian

Azpeitiko Udal Gobernuak argi du garraio publikoaren aldeko paustua egin behar dela. Modu honetan, hainbat pauso eman ditu Udalak azken bi urteetan. Besteak beste, Donostiarako zerbitzua eta larunbat eta festetako autobus zerbitzuak indartu dira, Azkoitia eta Zumaia artean lau zerbitzu berri jarri dira eta irailetik aurrera berriz, 30 zerbitzu gehiago egotea eskuratu du. Neurri guzti hauekin, autobus zerbitzuak 70.000 erabilpen gehiago izatea lortu du bi urtetan. Besteak beste, azken bi urte hauetan Donostiarako zerbitzua eta larunbat eta festetako autobus zerbitzuak indartu dira eta Azkoitia eta Zumaia artean lau zerbitzu berri jarri dira. Azkena, 30 zerbitzu gehiago izatea lortu da.



Zerbitzuaren hobekuntza honek erabiltzaileen kopurua handitzea lortu du:

	2010	2011	2012
AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA			
Azkoitia-Zarautz	45.804	45.841	48.679
Azkoitia-Donostia	159.187	165.721	224.544
Azkoitia-Tolosa	6.668	6.947	6.382
EUSKOTREN			
Azpeitia-Ermua	25.944	29.919	34.213
Nocturno Azpeitia-Ermua	5.347	5.848	5.682
Zumaia-Donostia ruta N-634	68	66	28
Zumarraga -Zumaia	215.916	218.807	184.841
Zumarraga-Zumaia por Aizarnazabal	19.259	18.834	27.921
Azkoitia-Donostia Nocturno			5.840
Zumaia-Azkoitia nocturnos			2.496
TAXIBUS			
Azpeitia-Errezil-Azpeitia		75	547
Azpeitia-Beizama-Azpeitia			21

Aurrerapausoak egin diren arren, gauzak hobetzen joan behar direla uste du Udalak, “herritarrei zerbitzu gero eta hobeagoa eskaintze aldera”. Horrela, Gizpukoako Foru Aldundiak bailarako garraio publikoaren azterketa bat egin hasi da eta horretarako, herritarren iritzia eta partaidetza izango du aintzat. Prozesua urriaren 28an iritsi zen Azpeitira eta herritar ugari bildu zen udaletxeko azken solairuan egindako bileran. Guztira, 30 azpeitiar gerturatu ziren eta herriko gabeziak agertu eta premiak eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Herritarrekin batera egingo den prozesu parte-hartzailearen lehen fasean, herritarren ekarpenak jasoko dira. Bigarren fasean, berriz, aurreproiektua idatziko da 2014ko otsailerako. Ondoren, herritarren parte-hartzea oinarri izango duen bileren bigarren itzulia egingo da, herritarrei aurreproiektua aurkeztuz eta azkenik, behin betiko proiektua idatziko da.



Azpeitiko historia eta ondarea biltzen dituen lehenbiziko lan kuadernoa osatu da

Herriko Olatz Aranguren historialaria eta Iban Eizagirre ilustratzailea ari dira unitate didaktikoa egiten

azpeitiaren historia modu erakargarrian bildu eta ezagutzera eman. Hori da Azpeitia Ezagutzen proiektuaren helburua eta horretarako, herriko ondarea unitate didaktikoetan biltzen hasi da Udala. “Zaila izaten da ezagutzen ez dena maitatzea; ez baduzu maite, zaila inplikatzeko; ez badago inplikaziorik, zaila herriak aurrera egitea. Gure nortasunaren eta kulturaren biziraupenaz dihardugu; honen aurrean herriko ondarea gazteenei helarazteko lana ezinbestekoa zaigu, herriaren ezagutzak baldintzatzen baititu hein handi batean herriaren oraina eta etorkizuna”, agertu du Hezkuntza zinegotzi den Mari Jose Iturriak.

“zaila izaten da ezagutzen ez dena maitatzea: ez baduzu maite, zaila inplikatzeko”

Lehenbiziko pausoak eman dira dagoeneko eta proiektu pedagogikoko lehenengo lan kuadernoa osatu da (guztira hiru izango dira). Lan kuadernoa Olatz Aranguren koordinatu eta egin du, Hik Hasiren aholkularitzarekin, eta liburuxkako ilustrazioak Iban Eizagirre herritarrak egin ditu. Honela, orain herriko ikastetxeak Lehen Hezkuntzako ikasleekin lanean hasiko dira lanean Azpeitiko historia gertutik ezagutu dezaten.

Hiru lan kuaderno

Lehen Hezkuntza hiru ziklotan banatuta dago, eta lan kuaderno bakoitza ziklo batean erabiliko dute. Lehenengoa, aurreneko zikloko ikasleentzat; 6-7 urte dituztenentzat, zuzenduta dago. Irakurtzen orduantxe hasten dira, eta horregatik lehenbizikoa testu gutxi eta argazki askokoa izango da. Bigarren unitateak, Aro Berriatik Aro Garai-kidera (XVI-XVIII) arteko denbora tartea bilduko du, eta 9-10 urte artekoentzat izango da. “Ikasleak hirugarren mailan ikasten du ondo irakur-tzen, bigarren zikloan, eta hor konplexutasun pixka bat joango da”. Eta, azkeneko unitatea, 11-12 urteko gaztetxoei zabalduko diete. XIX, XX eta XXI. mendeko Azpeitia izango dute ardatz azken horiek.



OLATZ ARANGUREN

Historialaria.

1. Nolakoa da historia luzea liburu batean sartzeko prozesua? Nondik hasiten da bat lan hori egiten?

Ez da erraza batetik sintesi lana egitea eta bestetik zein eduki diren sartu beharrekoak erabakitzea. Garrantzia eman zaio edukiak kronologikoki antolatzeari, horrela ikasleentzat eta interesa duen edozeinentzat ulergarriagoak izango direlakoan. Ondorioz, nahiz eta aldi jakin batzuetako informazio handirik ez eduki, Urola bailara hartu da kontuan, ez Azpeitia bakarrik.

Garrantzitsua izan da lehenagotik Azpeitiko historiaren eta orokorrean Azpeitiko ondarearen inguruan eginak

zeuden lanak aztertzea. Behin hori egin eta gero beste herri batzuetan ondarearen bilketa nola gerturatu zaien herritarrei aztertu dut. Ondoren puzzle baten antzera, piezaz-pieza edukiak, jakintzak eta ikasleentzat ariketak diseinatu eta zegozkien lekuan jartzea izan da ondorengo lana, argazkiak edo marrazkiak nolakoak izango ziren pentsatzearekin batera. Ondoren zirriborro antzerako bat osatu eta herriko ikastetxeekin eta Iban marrazkilariarekin lantzen hasi. Lan handia izan da orokorrean baina emaitza oso onak eman ditzakeela ere uste dut.

2. Lehendabiziko lan koadernoak aurkeztu zen. Zein izan da harrera?

Oso ona izan dela esango nuke. Banan-bana herriko ikastetxe desberdinekin egon gara, lan koadernoak landuko dituzten ikasleen irakasleekin eta orokorrean materialarekin oso gustura dardela esan digute. Hutsune haundi bat sumatzen zen Azpeitian bertako historia lantzerako garaian. Pentsatzen dugu lan honek hutsune hori beteko duela, eta orain arte egon garen irakasleek ere horrela gaiak lantzea errazagoa zaiela esan digute. Gainera maila horietako curriculumarekin txertatzeko moduan pentsatuta dago materiala.

Herritarren aldetik ere harrera ona izan du. Zenbaitek kalean gelditu eta zorionak eman dizkigu.

Gure asmoa ikasturtea pasatzen denean, ikasgeletan edo beste edozein lekutan proiektua martxan jarri duten irakasle edo hezitzaileekin bilera bat egitea da proiektua ebaluatzeko, indaruneak eta ahuleziak identifikatu eta ahal den heinean datozen ikasturteetarako kontuan izateko.

3. Orain bigarren eta hirugarren lan koadernoak egitea falta da. Nola joango da prozesua?

Beti izaten da hastea zailago, ez dakizulako lana nola joango den, metodologia zehaztea kostatu egiten delako... alde horretatik bigarren eta hirugarren lan koadernoak egitea arinagoa izango dela pentsatu nahi dut. Orain landuko ditugun gaiekin gaur egunera gehiago hurbilduko gara eta beraz informazio idatzi gehiago dago eskuragarri. Gaur egungo gaitara hurbildu ahala herritarrek ere ahozko informazio aberasgarria eman dezaketela pentsatzen dut, pasadizoak, kontakizunak, gertaera jakin batzuen inguruan kalean arnasten zena...



IBAN IZAGIRRE

Ilustratzailea.

1. Unitate didaktikoaren gidari bezala, Patxi eta Inaxi aurkitzen dira. Zer aurkitu zenien bi pertsonaiei protagonista bilakatzeke?

Jatorriz pertsonaia hauek Azpeitiko bi argazki zaharretan oinarritzen dira. Bat

Azpeitiko Berdura Plazan ari da ahateak saltzen eta bestea garai batean enparantzan zegoen arkupetako prentsa kioskoan ugazabari laguntzen. Nagusiki kale eta baserri munduen arteko lotura islatzea zuten helburu Patxi eta Inaxi, Azpeitiko errealitate sozio-ekonomiko-historikoa modu ximple batean agertzeko aukera bat zen. Honetaz aparte, ikasleei iragan ez hain urrun bateko egoera bat agertuz, egun bizi duten egoeraz jabetzeko modu bat ere bazen. Hau da, Inaxi eta Patxi fikziozko bi pertsonaia dira baina benetako argazki batzuetatik hartuta dago ideia eta biak adin txikikoak badira ere lanean ari dira.

2. Ilustrazioak egiteko orduan, erreallismoa edo norberaren interpretazioa hartzen duzu oinarritzat? Edo bien arteko oreka bilatzen duzu?

Ilustratzaileak jasotzen duen enkargu

bakoitzera egokitu behar du erregistra. Ez da gauza bera umeentzako unitate didaktikoak ilustratzea edo helduentzako ilustrazio gordin bat egitea. Nik detaileen errepresentazioari garrantzia handia ematen diet baina detaileen lanketa handi batek errealismoa gehiago gertura bagaitzake ere, ez zait argazki bat kopiatzea interesatzen, neure interpretazio pertsonala egitea baizik. Lan honen kasuan irudi goxo eta biziak egiten saiatu naiz.

3. Orain arteko emaitzaren balorazioa nolakoa da? Orain arteko esperientziak nola lagunduko dizu hurrengoak egiterakoan?

Esperientzia aberasgarria izan da eta gustura gelditu naiz emaitzarekin. Nire ustez lehen zenbakia da zailena, orain forma eman diogu eta badakigu gutxi gorabehera nolakoa izango den hurrengoa.



Tasak onartu ziren Udalbatza

Herriarrei eragiten dieten zerga, tasa eta prezio publiko nagusiak ez dute igoerarik izango

Neurri berriek ez dute sarrera jeitsierarik eragingo, alderantziz, sarrerak igotzea espero dute Udal arduradunek. Ondorioz, zerbitzu publikoen jasangarritasuna garantizatuta dago

Ez ohiko Udalbatza egin zuen Azpeitiko Udalak urriaren 16an 2014ko zerga eta tasa agintaraua onartzeko, eta hiru alderdi politikoei aho batez onartu zituzten herriarrei eragiten dieten zerga, tasa eta prezio publiko nagusienek igoerarik ez izatea. Herriko egoera ikusirik, eta herritarrak pairatzen ari diren krisia kontutan hartuta, ekitatea, progresibitatea eta birbanaketaren aldeko neurriak hartzea erabaki du Udal Gobernuak.

“Zerga, tasa eta prezio publikoak ez dira soilik dirua biltzeko tresna, politika ekonomiko aurrerakoiak, herritarren bizi

“Azpeitiko Udalak aho batez onartu ditu 2014ko tasa eta zergak”

baldintzak eta justizia sozialean sakontzeko tresnak ere badira. Horregatik garrantzitsua da ekitatea, progresibitatea eta birbanaketaren aldeko apustuak egitea. Gehien duenak, gehiago ordaintzea, gutxien duenaren mesedetan. Udal ardura dugunak gainera udalak eskaintzen dituen zerbitzu publikoaren kosteak bete-

tzeko ardura du, arlo publikoan defizita sortzeak, azken finean, pribatizazioaren aldeko etorriko den politika neoliberalak justifikatuko du. Noski, publikoaren alde egiten dugu baina publiko efizientea behar du izan, bai edo bai”, agertu zuen Eneko Etxeberria alkateak.

Krisia eragin nabarmenak uzten ari da Azpeitian, bai Udalean eta bai herritarren artean. “Inguruko herriek baina gehiago eta egoera salbuespen egoera izan daiteke. Herritar askok lana galdu dute eta Udalak salbuespen gisa esfortzu berezia egitea aztertu du arlo honetan”, gaineratu zuen Etxeberriak.

Ardatz nagusiak

Hiru ardatz nagusiren ildotik planteatzen dira zerga, tasa eta prezio publikoen inguruko ordenantzak:

- 1º Ekonomia suspertzeko aurreko urteko neurri guztiak mantentzea eta, aldi berean, ingurumenaren aldekoak.
- 2º Krisi egoera, herritarrek une gogorrek bizitzen ari dira eta, ondorioz, Udalak ahal duen esfortzu handiena egin behar du tasa eta prezio publikoak egokienak izaten.

3º Zerbitzu publikoek jasagarritasunaren ardura, zerbitzuen kosteak arduraz kudeatu behar dira eta, ondorioz, zerbitzuari dagozkion zerga, tasa eta prezio publikoak ezarri.

Erreferentzia KPla abuztutik abuzturako da, 1,5%, nahiz eta KPla erreala handiagoa izan.

Herritarrei eragiten dieten zerga, tasa eta prezio publikoa nagusiak ez dute igoerarik izango: Ondasun Higiezin

Zerga (IBI), kiroldegia, eta zaborra. Uraren eskumena eta prezioa jartzeko ahalmena Ur Kontsorzioak du. Gai-nontzeko tasa eta zergak KPI igoko dira.

Eremu horietan galtzen den diru bilketak ez du eraginik izango Udal kontuetan, beste eremuetan hartzen diren neurriek diru bilketa handituz konpentsatzen dituzte. Ondorioz, diru bilketan ez da eraginik aurreikusten, aldiz diru-bilketa hobetzea aurreikusten dute udal-teknikariak.

Planteamendua:

1.- HOBARIAK eta LAGUNTZAK ezin dutenei tasei aurre egin.



Langabetuei, iritsi ezin direnei, eta familia ugari laguntzekin jarraitzea bai kirol patronatuan bai euskara patronatuan bai gizarte zerbitzuetan.

Laguntzak bideratuko zaizkie tasei aurre egiteko Gizarte Zerbitzuetatik. Egoera sozial eta ekonomiko larria dutenei, hobariak eta ordainketen atzeratzeak aplikatuko dizkiegu.

Familia ugarien kasuan laguntza sistema aldatzea, eta aurrerantzean kuota sistematik errenta errearen sistemara pasatzea, justuago delako.

Familia ugari dagozkien hobariak zehazterako garaian, familia ugari izaera ez ezik, dituzten sarrerak ere izango ditugu kontutan.

2. – INGURUGIROA

- a) Kotxe elektrikoak eta hibridoak erosten dituztenak Zirkulazioa zergak %50 hobaria.
- b) Birziklatzearen aldeko apustua, Auto-konpostaren kasuan, hobaria %25a herritarrentzat.



3.- EKONOMIA: bizi dugun egoera larriari aurre egiteko.



- a) Komertzio berriak irekitzen dituztenak edo berrikuntza egiten dituztenak obra lizentzietan erdira jaistea.
- b) Industriadako ibilgailuei (kamioiak, erremolkeak, autobusak eta traktoreak) igoerarik ez. Ekonomia sustapenerako neurri gisa.
- c) Industriako hobariak banaka-banaka aztertu. Industria berriak sortzea eta hobekuntzak egitearen kasuan aztertzeko konpromisoa.
- d) IAE, Ez du eraginik enpresa txiki eta ertainetan 1.000.000tik gora fakturatu behar bai da. Beste herriek gisako zerga izango da.
- e) Alokairua sustatzea, etxebizitza hutsak %50 IBI errekarua, salbuespena alokatuak, jarduera ekonomikoak,...
- f) Baserritarrak, bertako produktuak saltzen dituztenak, %50 hobaria.
- g) Higiezin industrialak ezin dituzten enpresei atzeratzeak.

4- IRUZUR FISKALAREN aurkako neurriak



Udalak inspezio esfortzu berezi bat egingo du, akatsak edo fede txarreko jarrerak direla medio, higiezinaren zerga ordaintzen ez duten etxebizitzak eta eraikinak kontrolatzeko.

Neurri berdinean etxe hutsik ez dagoela egiaztatzen ekartzen

den dokumentazio dena Ogasun sailera bidaliko da, alokairu kontratuak ..

IAE zergan, enpresek deklaritzen dutena benetan errealitatearekin bat datorrela egiaztatzeko bitartekoak jarriko ditugu.

5- NEURRI BERRIAK

Neurri berdinean kutzazain automatikoen espazio publikoak erabiltzeagatik ordaindu beharko dute.

- Kutzazain automatikoak espazio publikoak, salbuespen gisa auzoetako okupazioak interes publikoaren alde direlako.
- Lur-salmenta salmenta plusbaldia beste herrien gisa.
- IAE, ez du eraginik enpresa txiki eta ertainetan, 1.000.000tik gora fakturatu behar baita. Beste herriek gisako zerga izango da ponderazio indizeekin. Kuota orokorra 2,10 izango da.
- Ibilgailuen zerga, esfortzu berezia egin da garraio publikoaren alde, eta orohar, auto partikularretik garraio publikora saltoa emateko esfortzuarekin jarraitu behar.
- Zilindrada oinarritzko eta txikia duten ibilgailuei (12 – 14 zaldi arteko) KPI are igoera aplikatuko diegu. Hortik gora, zilindrada gora doan heinean, igoera %5, %7,5 eta %10 bitarterakoa izango da.

Beharra duten familietako haurrei laguntzeko beka sistema abian jarri du Udalak



Udal arduradunak eta eskoletako ordezkariak aurkezpenean.

3 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta ume edo gazte bakoitzak bi beka jasoko ditu gehienez

Krisi ekonomikoa bereziki bortizki kolpatzen ari da gure herria, familien arteko berezitasunak gero nabarmenagoak izanik. Etxeko ekonomiaren egoera txarrak eraginda, gero eta haur gehiago dira ezin dutenak Hezkuntza arautuaren kanpo gelditzen diren eskoletan ibili. “Egoera honen aurrean, Udal Gobernuak ezin gara besoak gurutzatuta egon. Hori garbi dugu. Horregatik, esfortzu berezi bat egin dugu beka sistema abian jartzeko”, agertu du Mari Jose Iturria Hezkuntza zinegotziak. Hezkuntza eta Gizarte Zerbitzuak batzordeetatik abiatutako ekimenaren diru-laguntzak honako eskoletarako balioko du:

- Juan de Antxieta musika eskola
- Itsasi Dantza taldea
- Arte eta Diseinu eskola
- Antzerki tailerra
- Udal Kirol Patronatuko bazkide kuota
- Gabonetako Udal Udalekuak (orain ezingo da izenik eman honetarako, Udalekuak zabaltzen duenean epea inskribatu ahal izango da hemen).

Beka sistema hau 3 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da, eta ume edo gazte bakoitzak bi beka jasoko ditu gehienez. Diru-laguntzaren kopuruari dagokionez, berriz, %25, %50, %75 edota %90 emango da, beharraren arabera.

2013 urterako diru-laguntzak jasotzeko epea amaitu den arren, urte berriarekin batera, laguntzak eskatzeko epea zabalduko da berriro. Diru-laguntza jasotzen dutenek, jarraipena izango dute Udalaren aldetik, horrela, asistentzia kontrolatuko zaie, eta klaseetara joaten ez dela ikusiz gero, beka kenduko zaie.

Azpeitiko Udalak bide berri bat zabaldu du beka sistema honekin, eta hasiera izanik, sistema hobetzeko beharrak aztertzen joango da. Hala ere, baldintza flexibleak edo malguak ezarri dira ahalik eta familia gehienara iristeko asmoz. Gizarte Zerbitzuak larrialdiko egoeratarako edota bazterkeriatarako diru-laguntzak emateko dituen irizpideez gain, ERE eta langabezian dauden pertsonak ere kontutan hartuko dira.

Sentsibilizazioarekin eta neurriekin bilketa selektibo tasak gora egin du 2013ko lehen sei hilabetekoan Azpeitian

Organikoaren bilketan 1.500 familiatik gora ari dira eta auzo-konpostan, berriz, 200



azpeitiko Udalak azken hilabetetan, hainbat urrats eraginkor eman ditu hondakinen bilketari lotuta. Alde batetik, Udalean lorturiko adostasunak, hondakinen bilketaren inguruko eztabaidan ahalik eta kohesio handienarekin aurrera egiteko konpromisoa berretsi du. Horri jarraipena emateko, *Gugandik hasita* kanpainarekin, hondakinen bilketan, birziklapena, berrerabilpena eta murrizketa helburu, konpromiso nahi hori, herriko eragileengana zabalduta eurekin partekatu du.

**“Bi helburu ari gara
sortzen, hondakin gutxiago
sortu eta sortzen dena
bereizita jaso”**

Sentsibilizazio eta konpromiso horrek, alde batetik, eta bestetik, egoera ekonomiko hertsia, hondakinen bilketa selektibo tasan igoera bat suposatu duela antzeman dugu. “Igoera hori hila-betez hilabete nabari da. Horrenbestez, bi helburu ari gara sortzen aldi berean, hondakin gutxiago sortu-prebentzio kanpaina, autokonpostaje eta krisi ekonomikoak kontsumoa gutxitu duelako eta sortzen dena bereizita jasotzeko denon aldetiko ahaleginaren emaitzak ikusten ari gara”, agertu du Leire Etxaniz zinegotziak.

Datuak hobera



“Zabor nahasiaren %6ko jaitsiera eman da urteko lehen sei hilabetekoan”

Datu adierazgarrienak, oro har, hondakinaren jaitsierari loturikoak dira, aldeak nabariak baitira: zabor nahasiaren %6ko jaitsiera eman da 2013. urteko lehen sei hilabetekoan.

Igoera nabarmena eman da, bestalde, hondakin organikoaren bilketan, nola 5. edukiontzia bidez edota autokonpostajearen bidez, organikoaren bilketan 2.100 familiatik gora ari dira Azpeitian. Organikoaren trataeran ere datuak oso azpimarragarriak dira: 2012. urtearekin alderatuz, otsailean %50 egin du gora organikoaren bilketak, martxoan %81,29, apirilean %52,07, maiatzean %70,78 eta ekainean %46,01.

Organikoaren trataera gakoa izaki, adierazgarria da, auzokonposta esperientziatarako 200 lagunek eman dutela izena orain artean. Herritarren inplikazioa nabarmentzeko da, ingurumenarekiko errespetua eta birziklapenerako kontzientzia duten seinale. Horrela, azken hilabeteetan auzo-konpostarako hainbat gune ezarri dira; Soreasu, Damaso, Enparan, Sanjuandegi eta Garmendi.



“Urritik hasita, azokako hondakinak birziklatzea derrigorrezkoa da”

Beste neurri nagusienetakoa astearteko azokan eman da. Honela, urritik hasita, azokako hondakinak birziklatzea derrigorrezkoa da, izan ere, orain arte azokan sortu izan diren hondakinak denak nahasturik jaso izan dira eta jasotakoa zuzenean zabortegira bota. Horretarako, bai plazan, bai azoka eraikinaren barruan, materia organikoa, ontzi arinak, kartoia eta kartoizko zein egurrezko kaxak jasotzeko gune desberdinak jartzen dira modu bereizian jaso ahal izateko.

Oraindik asko egiteko

Azpeitiko Udalak argi du, birziklapenaren joera goranzkoa bada ere, beste bilketa maila selektibo batzuetara gerturatzeko urratsak egiten jarraitu behar duela. Eskualdean sortzen diren hondakinen ia erdia sortzen du Azpeitiak, eta zentzu horretan, eredugarri izatea badagokiola ere uste du, eskualdeari begira ere.

Asmo horretan, udazken honetan autokonpostajea bultzatzea, Gugandik hasita kanpainari indarra ematea eta adosturiko bilketa selektibo tasara heltzeko beharrezko azterketa eta adostasunak bilatzeko urratsak egitea aurreikusten dugu, beti ere, oraingo urratsei jarraipena emanez.

Auzolanean egindako haur parkea



haur parke berria du Matxinbentako auzoak. Auzotarrek bi eskaera zituzten aspaldidanik, haur parke berria egitea eta taberna aurreko plaza egokitzea. Bi nahiak egi bihurtzeko, auzotarrak bildu eta auzolanean egitea erabaki zituzten haur parkeko hainbat lan. Modu honetan lanak azkartu eta dirua aurrezteko lortzen baitzuten. Gainera, Done Jakue kaleko haur parke zaharreko jolasak berrerabili dira Matxinbentan. Parkeko lanak amaituta, Udala taberna aurreko plaza Santa Ageda festen aurretik edo ondoren egitea aztertzen ari da jada.

Haurren danborradako karroza lehiaketa abian



2014 urteko haurren danborradako karroza egiteko lehiaketa martxan jarri da. Festa Batzordeak aurreratu duenez, aurtengo gaia Imanol Elias Odriozola (1936-2013) da. Azpeitiko idazle, historialari eta herriko kronista ofiziala urte honetan zehar hil da eta hainbat urtetan Azpeitiko herriaren alde egindako lana eskertu nahi zaio modu honetan. Proposamenak Udalean aurkeztu behar dira azaroaren 30 bitartean eta irabazleak, 1.500 euroko saria lortuko du.



Hitzarmena, euskararen alde

azpeitiko Udalak euskararen aldeko apustua egiten du eta zentzu horretan, hitzarmen berria sinatu du azken asteetan Hitzza egunkariarekin. Hitzako ordezkariak diren Uxua Ostolaza eta Leire Ventas udaletxean izan ziren urtebeterako akordioa sinatzen. Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak, Hitzak eskualdeko prentsan euskara bermatzeaz gain, herrian eta eskualdean euskararen alde egiten duten lana aitortu nahi izan du.



agenda - azaroa

8, ostirala

ERREBALEKO SAN MARTIN JAIK
21:30etan Mus Txapelketa (Urtzi eta Pikua Tabernetan)

LASAO SANMARTIÑAK
20:00 Txupinazoa
20:30 Bertso afaria AGIN REZOLA eta AMAIA AGIRRE bertsolariekin
Ondoren trikitilariak

9, larunbata

MENDI IRTEERA (13-14)
URKIAGA-ARGINTXO-ELIZONDO
ARGAZKILARIEN TOPAKETA
Lekua: Sanagustin Kulturgunea

ERREBALEKO SAN MARTIN JAIK
11:00etan Txistulariak
12:00etan Trikipoteoa eta luntxa
16:00 txokolatea eta umeen jolasak
16:30 sokamuturra

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

LASAO SANMARTIÑAK
15:30 Frontoian haurrentzako PUZGARRIAK
17:00 Txokolatada

KONTZERTUA ELKAR-EKIN
LINTON TAUN eta MALDER
Ordua: 23:00
Lekua: Sanagustin kulturgunea

10, igandea

LASAO SANMARTIÑAK
11:30 Zestoako Idiakaitz Txistulari taldearen kalejira, LASAOKO abere eta nezkal produktuen azoka SALDA BADAGO
SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

11, astelehena

LASAO SANMARTIÑAK
11:00etan Meza Nagusia. Zestoako Parrokiko Abesbatza
Ondoren argazki zaharren erakusketa
SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

XXIV. IPUIN KONTALARIA MIRIAN MENDOZA
HH 4 maila
Lekua: Udal Liburutegia
Ordua: 18:00

12, asteartea

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

13, asteazkena

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

14, osteguna

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

15, ostirala

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

MIKEL LABAKARI OMENALDIA
Tokia: Garmendipe futbol zelaian
Partidua: Real Sociedad- Rayo Vallecano
Ordua: 19:30

16, larunbata

KONTZERTUA LIBRE DINAMIKA
Cold revenge + Screammers and Seaners + Los Galerna
Ordua: 23:00
Lekua: Sanagustin kulturgunea

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

17, igandea

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

KONTZERTUAK
Keu + Raimundo Amador
Ordua: 19:00etan
Lekua: Sanagustin Kulturgunea

18, astelehena

XXIV. IPUIN KONTALARIA PELLO AÑORGA
HH.5 maila
Lekua: Udal Liburutegia
Ordua: 18:00

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

19, asteartea

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

20, asteazkena

SANTA ZEILIZ JUAN ANTXIETA MUSIKA
ESKOLAREN JAIALDIA
Lekua: Soreasu

Ordua: 19:30etan

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

21, osteguna

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

22, ostirala

SANTA ZEILIZ
ON KIXOTE JAIALDIA
Lekua: Soreasu

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

23, larunbata

Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

UDAL MUSIKA BANDA
SANTA ZEILIZ KONTZERTUA
Lekua: Soreasu
Ordua: 19:30

24, igandea

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

MENDI IRTEERA (13-14)
AGIÑA- SAMIÑO- ONATZ

25, astelehena

XXIV. IPUIN KONTALARIA ANNIE FUNNY
LH 1, 2, 3 eta 4
Lekua: Udal Liburutegia
Ordua: 18:00

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

26, asteartea

SENSACIONES ERAKUSKETA FELIPE COCA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa


28, osteguna

LANDETAN SAN ELOY JAIK
21:00 Mus Txapelketa
Lekua: Mendizabal jatetxean

30, larunbata

GURE INGURUARI BEGIRADA BAT ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

azpeitia



Urriak 31, osteguna

XXXI. ANTZERKI TOPAKETEN
IREKIERA
HELDUENTZAT
"GABRIEL EN LECUA"
GABRIEL ARISTI KULTUR ELKARTEA
21:30etan, Soreasu Antzokian

AZAROA

1, ostirala

HELDUENTZAT
HITZAK. BESTERIK EZ. HIKA
21:30etan, Soreasu Antzokian

2, larunbata

ESTRENALDIA

HELDUENTZAT
HAMLET LE PETIT THEATRE DE
PAIN-ARTEDRAMA-DEJABU PANPIN
LABORATEGIA
21:30etan, Soreasu Antzokian

3, igandea

ANTZERKI ESKOLEN EGUNA
EHAZE
Plaza Nagusia, goizean zehar

HAUR + HELDUENTZAT
"MENDIKO ALTXORRAK" PATATA
TROPICALA
18:00etan, Soreasu Antzokian

8, ostirala

HELDUENTZAT
"HIRU" TXALO
21:30etan, Soreasu Antzokian

9, larunbata

ESTRENALDIA

HELDUENTZAT
"TRAGANARRU" BADA Teatra
21:30etan, Soreasu Antzokian

10, igandea

HAUR + HELDUENTZAT
"HAREAZKO IPUINAK" MARKELIÑE
18:00etan, Soreasu Antzokian

urriak 31, azaroak 12 eta 13 eskola edo gaztetxoei zuzenduriko antzerkia

11:00etan eta 15:30etan,
Soreasu Antzokian

Antzerki amateurrari zuzenduriko asteburua

14, osteguna

POLTXIKOKO ANTZERKI EMANALDIK
eta ANTZERKI ALTERNATIBOA
"MIKROUHINA" ZE ONDA TALDEA
21:30etan, Gaztetxean

15, ostirala

HELDUENTZAT
"ZAHARRAK BERRI" ITZURUNGO
UHUINAK
21:30etan, Soreasu Antzokian

16, larunbata

HELDUENTZAT
"DENA BERRIZ BUELATZEN DA"
AZPEITIKO EMAKUME TALDEA
21:30etan, Soreasu Antzokian

17, igandea

HAUR + HELDUENTZAT
AMAEERAKO ANTZERKIA
"ETA ZER?" DAR-DAR PRODUKZIOAK
18:00etan, Soreasu Antzokian